118 Jare 131 1

1 Gu D. D. Severo Andriani, Jaincoaren eta
Aiki Apostolico Sainduaren graciaz Iruñaco
Yaun Aphezpicu garenac, Erresumaco senadoria
1 Erreguen Charles III ain Gurutciaz ohoratua. etc, etc.
4 Yakitea emaiten diotegu hau ikusico duten yendei
nola aguertua izan den gue aintcinian liburu
1 ttiki hau ceinac baitu izena Guiristino Doctrina
2 bita Gazpar Astetez; ceinac galdeguin izan
3 baitäoku gue laudamena. Unguia irakurrazi
1 onduan gue confientziaco yende bati eta seguran-
2 tzaikin liburu hanec ez duela erraiten gue
Erligione Saindua colpa dezaken gauzaic, ez
1 eta ere onestatiain contracoic. Arrozoin hoiec
1 diela medio eman izan diogu gue laudamen
1 osua hunen inprimatceco eta nori hitz eman
onduan izain dela iscribatua laudamen hau
liburu bakotchain hastian.

Emana Iruñan Urtarrilain hamabortzi-
an mila zortci ehun eta berrogoi eta hama-
hirrian.

Severo Iruñaco Jaun Aphezpicua.

Jaun Aphezpicuain manuz
D. Luis Barasoain, secretariua.

# Guiristino-Doctrina.

Aita Gaspar Astete Jesuistac.

Erdaraz iscribatua

Escuarat itzulia Iruñaco diosesaco
jaun Vicario batec, emendaturic
ceimbait othoitz eta bertce
gaucez.

Guiristino fidelen instruccioneco.

Behar den libertatiaikin

Iruñean

Garciain Imprimerian

1853.

1 # Iracurtzailiai

Nahiz hainitz guiseta itzulia khausitcen den
2 escuaraz Aita Gaspar Astete Jesuistac Erdaraz iscribatu
2 Guiristino-Doctrina, bada oraino Iruñaco diosesan
1 cembait escualdun herri, compreni ez deraquetenac
1 liburu hetaco Escuara gucia, mintzatceco manera
hainitz diferenta delacotz batzuetaic bertzetaz; eta
1 nola necesario baita Guiristino guciac salbamendua
ardiesteco izan daitezen behar den bezala instruituac
1 Jaincuain Legue Sainduan, publicatzen da doctrina
hau herri hetan eta bertze hainitzetan; han mintzatzeco
3 usaia duten Escuaran, lekhu hetaco Guiristinuac
3 errechkiago instruituac izaitia gatic Erligioneco eguin-
bidetan, ceinetan atchemanen baitic emendatuic
cembait othoitz eta gauza bertze doctrinaco liburuet
3 ez direnac. Ikhasten badduzu unqui doctrina Saindu
2 hau, eta urrundur bekhatu eguiteco lekhu suerte gucie-
3 taic, sequitzen hunec irakhusten daotzun bidia, ardi-
3 etsico duzu Ceruco Loria, zeina baita desiratzen daotza-
2 na zure cerbitzari humilac

F. E. V.

# Bekkatoros gucientzat abisu ona

Utz zazu bekâtorosa  
2 Gaur beretic bekâtua  
Urrun zaite ocasionetic  
1 Zeinetan bai zaude sartua

---

2 Izan daitake gaurco gauian  
1 Zure ohian hiltzia  
Bai eta bihar baino lehen  
Ifernuetan sartzia

---

1 Utz detzagun bizio hec  
2 Zeinec bai gâozkate galduic  
Eta galde barkamendua  
1 Jaincoai damutuic

---

1 Liburu huntan erraiten dena  
2 Sinhetsi eta eguizu  
1 Içaiteco Ceruco loria  
Han zaitezen gozatu.

1 Gurutze Sainduain + seinalia gatic, gure +etsaietaic
1 libra gaitzatzu +gure Jauna eta Jaincua.
1 Aitain eta Semiain eta Espiritu Sainduain izenian
Hala-biz

## Gure Aita

Gure Aita, Ceruetan zaudena, erabil bedi saindugui
2 zure icena: ethor bedi zure erresuma; eguin bedi zure
2 borondatia, ceruan bezala, lurrian ere. Iguzu egunian
3 eguneco oguia; barkha dagozkiguzu gure zorrac, guc
3 gu zorgaituztenei barkhatzen diotzkateguen bezala;
2 eta ez gaitzatzula utz tentamendutan erortcea; bainan
beguira gaitzatzu gaitz guzietaic. Hala-biz.

## Agur Maria.

Agur, Maria, graciaz bethia, Jauna da zurekin; benedicatua zae emazte gucien artian, eta benedicatua da zure sabeleco fruitua Jesus. Maria Saindua Jaincuain Ama, eguizu othoitz gu bekatoroentzat, orai eta gure heriotzeco orenian. Hala-biz.

## Credua

Sinhesten dut Jainco Aita bothere gucia duena baithan Ceruain eta Lurrain creatzailian; eta Jesu-Christo

haren Seme bakhar gue Jauna baithan: ceina concebitu baitcen Izpiritu Sainduain berthutez, sorthu cen Maria Birjina-ganic; pairatu çuen Pontio Pilatusen manuain azpian, Gurutceficatu çuten, hil tzen eta ehortzi çuten; yauxi cen Ifernuetara, hirugarren egunian yeki cen biciric hilen artetic; igan tzen Ceruetara; han dago yarriric Jainco Aita bothere guçia duenain escuinian; handic ethorrico da bicien eta hilen yuyatcea. Sinhesten dut Izpiritu-Saindua baithan; Eliza Catolica Sainduan; Sainduen comunionian; becatuen barkhamenduan; haraguiain piztian; bethi irauten duen biçitzian. Hala-biz

Salbia

Jaincuac salba zaitzala Erreguina; misericordiain Ama; gue bizia; eztitasuna, eta gue esperantza. Jaincuac salba zaitzala. Zuri deyez gaude Evaren ume desterratuac, zue gana gaude hats-beherapenez sentimenduz eta nigarrez nigarrezco lekhu huntan. Ea bada, Andria gue Artecoa, itzul zaitzu gue gana zue begui misericordios hoiec. Eta desterru hunen onduan irakhuts zaguzu Jesus, zue sabeleco fruitu benedicatua. ¡ O eztitasuna! ¡ O othoitzeguilia O Birjina Maria eztia! Othoitz eguizu gue gatic, Jaincuain Ama Saindua, izan gaiten

digne ardiesteco Jesu-Christoin promesac
Hala-biz.

## Cõfesio generala

Ni bekhatorosa cõfesatcen natzayo Jainco Aita bothere gucia duenai, Maria bethi Birjina dohatsuai, Micael Arcanyelu dohatsuai, Joanes Batista dohatsuai, Petri eta Paulo Apostolu Sainduei, Saindu guciei, eta çuri ene Aita, cein eguin baitut sobra bekhatu, gogoz, hitcez eta obraz; ene faltaz, ene faltaz, ene falta handiaz. Hortacotz othoitz eguiten diot Maria bethi Birjina dohatsuai, Micael Arcanyelu dohatsuai, Joanes Batista dohatsuai, Petri eta Paulo Apostolu Sainduei, Saindu guciei, eta çuri ene Aita, eguin deçoçuen enetçat othoitz gue Jainco Yaunai.

## Contricionezco acta

Jesu-Christo ene Jauna, Jainco eta Guizon eguiazcoa, ene Creatzailia, eta Erostailia, Zu zaena gatic eta ceren maithatcen zaitudan gauza gucien gainetic, damu dut, Jauna, bihotz gucitic Zu ofentsatuaz: hartcen dut borondate fermu bat ez guehiago bekhaturic eguiteco; cõfesatceco eta emanen zaudan penitentciain complitceco, eta urruntzeco bekhatu eguiteco occasione gucietaic. Esquaitzen darozkitza

ene bicia, obrac, eta nekeac ene bekhatuen satifacio netan, confidatcen dut zue ontasun, eta misericordia finic gabecoan barkhatuco dazkidatzula zue odol preciatu, pasione, eta heriotciain merecimenduen gatic, eta emanendautazula gracia hobeki bicitceco eta irauteco zue cerbitzu sainduan heriotceco orenecaino. Hala-biz.

## Contricionezco acta franciaco guisan

Ene Jainco maitia, barkhamendu eske nagobzu humilki, ene bekhatu guciez, damu dut eta urriki zue amorea gatic ceren guciz ona zarelaric ofentsatu zaitudan, eta hartcen dut borondate fermu bat ez guehiago bekhataric eguiteco, zue graciareguin batian; halaber hartcen dut borondate nere bekhatu guciez osoki confesatceco, eta emain zaitan penitentciain complitceco.

Hala-biz

## Hamar Manamenduac

Jaincuain Legueco Manamenduac dire hamar

Lehenbicico hiruac Jaincuain
ohoreari zaizconac; eta bertce
zazpiac laguen proximuain
probetchuai

Lehenbicicua: Jaincua maitatcia gauza guciën gainetic.
Bigarrena: Haien icen saindua ez yuramentatcia banoki.
Hirugarrena: Igandiac eta Bestac santificatcia.
Laugarrena: Aita eta Ama ohoratcia.
Bortzgarrena: Nihor ez hiltzia.
Seigarrena: Lohiqueriaic ez eguitia.
Zazpigarrena: Ez ebastia
Zortcigarrena: Lekhicotasun faltsoic ez eguitia ez eta guezurric erraitia.
Bederatcigarrena: Bertzen esposic ez desiratcia.
Hamargarrena: Bertzen gauzaic ez gaizqui desiratcia.

Manamendu berac franciaco guisa

1. Jainco bat adora zazu, halaber maitha osoki.
2. Juramenturic zuc ez duzu, ez ëinic eguinen banoki
3. Igandiac beguira zatzu, Jauna ere cerbitza debotki.
4. Aita eta Ama ohora zatzu, bici zaitecen luzeki.
5. Nihor obraz hilen ez duzu, ez borondatez gaichtoki.
6. Lohiqueriaic eguinen ez duzu, obraz ez gogoz likhiski.
7. Bertcerena ebatsico ez duzu, ez atchiquico inyustuki.
8. Lekhucotasunic ez duzu, ez hitz errain falsoki.
9. Bertzen esposic ez duzu, desiratuco lizunki.
10. Gutticia izanen ez duzu, bertzen onain gaizki.

Hamar Manamendu hauc cerratzen dire bietan;
Jaincuain cerbitzatzen eta maithatzen gauza gucien

ganetic; eta lagun proximua gue buruac bezala Hala-biz.

Articulu fedezcuac

Articulu fedezcuac die hamalau: Lehenbicico zazpiac Jaincotasunai zaizconac; eta bertce zazpiac Jesu-Christo Jainco eta Guizon egiazcoain Guizontasun Sainduai.

Jaincotasunai zaizconac die hauc.

Lehenbicicua: Sinhestia Jainco bat bakharra guciz botheretsuan.
Bigarrena: Sinhestia dela Aita
Hirugarrena: Sinhestia dela Semia
Laugarrena: Sinhestia dela Izpiritu-Saindua.
Bortzgarrena; Sinhestia dela Creatzailia.
Seigarrena: Sinhestia dela Salbatzailia
Zazpigarrena: Sinhestia dela Lorificatzailia.

Guizontasun Sainduai zaizconac die hauc.

Lehenbicicua: Sinhestia Jesu-Christo gue Jauna guizon bezala izan cela concebitua Izpiritu-Sainduaen obraz eta graciaz.
Bigarrena: Sinhestia sorthu cela Birjina Maria Saindua ganic, gueldituen celaic hau Birjina erdi aintzinian erditzian, eta erdi onduan.
Hirugarrena: Sinhestia errecibitu cituela heriotcia eta

Passionia gu bekhatorosac salbatcia gatic.
Laugarrena: Sinhestia yautsi cela Ifernuetara, eta
athera cituela hain ethortce Sainduain beira
zauden arimac.
Bortzgarrena: Sinhestia phiztu cela hilen artetic
hirugarren eguniain.
Seigarrena: Sinhestia igan cela Ceruetara eta daola
yarriric Sainco Aita guciz bothereutsuain escuinecoaldian
Zazpigarrena: Sinhestia ethorrico dela bicien eta
hilen yuyatcera: onei emaiteco Loria, ceren
beguiratu cituzten haren Manamendu Sainduac;
eta gaichtuei seculaco pena, ceren etcituzten
beguiratu.

I. Ceinatcia, eta Gurutzian seinalia
G. Cer da ceinatcia?
I. Escuineco escuco erhi behatzaz hiru Gurutze
equitia, lehenbicicua copetan, bigarrena ahuan
hirugarrena bulharretan, mintzatcen gailaic
Sainco gue Saunaiguin.
G. Irakhuts nola?
I. Gurutze Sainduain + seinalia gatic, gue +
etsaietaic libra gaitzatzu + gue Sauna eta
Saincua.
G. Certaco ceinatcen zae copetan?
I. Saincuac libra gaitzan phentsamendu gaichtoe-
taic
G. Certaco ahuan?
I. Saincuac libra gaitzan hitz gaichtoetaic.
G. Certaco bulharretan?
I. Saincuac libra gaitzan obra eta desira gaichtoe
taic
G. Cer da Gurutziaren seinalia equitia
I. Escuineco escuco bi erhiez Gurutze bat equitia
copetatic bulharretaino, ezquerreco soinetic
escuinecoaino, mintzatcen gaelaic Trinitate
guciz Sainduaikin.
G. Irakhuts nola

# Guiristino - Doctrina.

Guiristino Doctrinain declaracionia galdeguinez
eta ihardetsiz

Galdeguiten dut. Guiristinua izaa?
Ihardesten dut. Ba, Jaincuain graciaz.
G. Nain ganic izan cinuen Guiristinuain icen
Saindu hoi?
I. Jesu-Christo gue Jauna ganic
G. Cer erran nahi du Guiristinua?
I. Christoin Guizona.
G. Cer aditcen duzu Christoin Guizonaz?
I. Jesu-Christoin fedia duena Bathayuan
errecibituic, eta obligatua dena haen cerbitzu
Saindara.
G. Cein da Guiristinuain seinalia?
I. Gurutze Saindua.
G. Cergatic
I. Cergatic baita Christo Gurutzeficatuain itchura
ceinetan erosi baiguintuen.
G. Cembat guisetaa Guiristinuac eguiten du
seinale hori?
I. Bietaa, Jauna
G. Cein die

# Guiristino Doctrinain Beezcuntza

Ikhusi dugu Guiristinua zaela Guiristinuain icen eta scinaliaz; erran daotazu oai.

G. Cembat gaucen yaquitea obligatua da Guiristinua heltcen delaic adimendura?
I. Lau gauza.
G. Cein die?
I. Yaquitia cer behar duen sinhetsi, cer galdeguin, cer obratu, eta cer errecibitu.
G. Nola yaquinen du, cer behar duen sinhetsi
I. Daquizkalaic Credua, edo Articulu Fedezcuac
G. Nola yaquinen du, cer behar duen galdeguin
I. Daquizkalaic gue Aita, eta Elizain bertce Othoitzac.
G. ~~Daquizkalaic~~ Nola yaquinen du, cer behar duen obratu?
I. Daquizkalaic Jaincuain Leguco Manamenduac, Eliza Ama Sainduainac eta Obra Misericordiazcuac.
G. Nola yaquinen du, cer behar duen errecibitu
I. Daquizkalaic Eliza Ama Sainduain Sacramenduac.

I. Aitain, eta Semiain, + eta Izpiritu Sainduain
icenian. Hala-biz

G. Noiz eguin behar duzue Gurutziain seinale hoi?

I. Cerbait obra on eguiten hasten gaelaic, edo
aurquitcen ~~gaelaic~~ gaenian beharretan,
tentamendu edo lanyerian; particulazki,
ohetic yekitzian, etchetic atheatzian,
Elizan sartzian, yatian, eta lokhartzian.

G. Certaco hainbertce aldiz?

I. Ceren lekhu eta dembora gucietan gue
etsaiec atacatcen, eta seguitcen baigaituzte.

G. Cer etsai dire hoiec?

I. Mundua, Debrua, eta Haraguia.

G. Beaz Gurutziac badu berthutia etsai hoien
contra?

I. Bai, Jauna

G. Nondic du berthute hori?

I. Jesu-Christoc bere heriotceaz Gurutzian
garaitu cituelacotz.

G. Adoratzen duzulaic Gurutzia nola erraiten
duzu?

I. Adoratzen zaitugu, Christo, eta benedicatcen,
ceren zue Gurutze Sainduaz erosi duzun
mundua.

I. Erromaco Eliza Ama Sainduac daozcanac eta sinhesten ditienac.

G. Cer gauza die zuc; eta hare daozcatzuenac eta sinhesten dititzuenac?

I. Articulu fedezcuac berezki, creduan dauden bezala.

G. Cergauza die Articulu fedescoac?

I. Die fediain Mysterioic berechienac.

G. Certaco die Articulu fedezcuac?

I. Ezagutzeco Jainco gue Jauna, eta Jesu-Christo gue erostailia.

G. Nor da Jaincua?

I. Jaincua da gauzaric hoberena eta ~~ne~~ ikusgarriena, erran eta phentsa ez daitequena; Jaun bat queiz ona, botheretsua, yaquintsuna, yustua, gauza gucien hastapena eta akhabantza.

G. Nor da Trinitate Saindua?

I. Trinitate Saindua da Jaincua bera, Aita, Semia, eta Izpiritu-Saindua, hiru presuna berechac, eta equiazco Jainco bat bakharra

G. Aita Jainco da?

I. Bai, Jauna.

G. Semia Jainco da?

# Doctrinain lehenbicico partia; ceinetan irakusten baitie Credua, eta Articulu Fedezcuac

G. Errazu: Norc erran zuen Credua?
I. Apostoluec, Jauna.
G. Certaco?
I. Gu fede Saindruan arguitzeco.
G. Eta zuc certaco erraten duzu?
I. Guiristinuec dugun fede hunen cõfesatzeco.
G. Cer da Fedia?
I. Ikhusi ez duguna sinhestia.
G. Ikhusi cinuen zuc Jesu-Christo sortcen?
I. Ez, Jauna.
G. Ikhusi cinuen hiltcen, edo Cerietara igaten?
I. Ez Jauna.
G. Sinhesten duzu?
I. Bai, Jauna, sinhesten dut.
G. Cer gatic?
I. Cergatic Jaincuac hala irakhutsi baitu Eliza Soma Sainduai, eta hunec hala irakhusten guri.
G. Cer gauza dire Guiristino bezala dautzcatzunac, eta sinhesten ditutzunac?

G. Jaincoac badu guc bezala gorphutz itchuraic?
I. Jainco bezala ez, ceren baita Izpiritu hutsa; bainan bai Guizon bezala.
G. Trinitateco hiru presunetaic cein eguin cein Guizon?
I. Bigarrena, ceina baita Semia.
G. Aita eguin cen Guizon?
I. Ez, Jauna.
G. Izpiritu-Saindua eguin cen Guizon?
I. Ez, Jauna.
G. Cein bada?
I. Bakharric Semia, ceina Guizon eguinic deithcein baita Jesu-Christo.
G. Beraz, nor da Jesu-Christo?
I. Jesu-Christo da Jainco ~~Semiain~~ biciain Semia, gure bicitcen irakhustia gatic, eta gue erostia gatic Guizon eguin cena.
G. Cer erran nahi du Jesusec?
I. Salbatzailia.
G. Certaic salbatu guintuen?
I. Gue bekhatutic, eta debruain gatibotasunetic.
G. Cer erran nahi du Christoc?
I. Unkitua, ossotua, edo ganzutua.
Je dis.... Unkitua

I. Bai Jauna.
G. Izpiritu-Saindua Jainco da?
I. Bai, Jauna.
G. Ba die beraz hiru Jainco?
I. Ez, Jauna; ez da eguiazco Jainco-bakhar bat baicic.
G. Aita Semia da?
I. Ez, Jauna.
G. Izpiritu-Saindua Aita da edo Semia?
I. Ez, Jauna.
G. Cergatic?
I. Ceren presuna berechiac baitie, eguiazco Jainco bakhar bat izanic ere
G. Nola da Jaincua guciz Botheretsua?
I. Ceren bere bothereaiguin bakharric eguiten baitu nahi duen gucia.
G. Nola da Creatzailia?
I. Ceren ezdeusetaic eguin cituen gauza guciac.
G. Nola da Salbatzailia?
I. Ceren emaiten baitu gracia, eta barkhatcen bekhatuac
G. Nola da Lorificatzailia?
I. Ceren emaiten baitu Loria irauten duenai haen gracian

I. Arima yuntatuic Jaincotasunai.
G. Eta haen gorphutza nola gueldituz cen
I. Yuntatuic Jaincotasun beraekin.
G. Nola phiztu cen hirugarren egunian?
I. Haen Gorphutza, eta Arima loriaz bethiac yuntatcen cielaic elkarrequin, behinere ez hiltceco.
G. Nola igan cen Cerruetaa?
I. Bere berthutez.
G. Cer erran nahi du: « Han daola yarriric Aita eternalain escuineco aldian?»
I. Jainco bezala Aitac bezambat ba duela eta Guizon bezala bertce guciec baino guehiago
G. Noiz ethorrico da bicien eta hilen yujatcea.
I. Munduain akhabantzan.
G. Eta orduan behar dute hil guciec phiztu
I. Bai Jauna, izan cituzten gorphutz eta arima berekin.
G. Cer sinhesten duzu erraiten duzunian « Sinhesten dut Saindoen Comunionian?
I. Guiristino fidel guciec dutela pharte bertcen ontasun izpiritualetan, gorphutz baten menbruac bezala, ceina baita Eliza

G. Certaz izan cen unkitua?
I. Izpiritu Sainduaren dohainez eta gracioz.
G. Jesu-Christo gure Jauna, nola izan cen concebitua, eta sorthu cen Ama Virjinaren ganic?
I. Obratuz Jaincuac naturaleçaz goragoki eta miraculuzki.
G. Nola izan cen obra miraculuzco hura?
I. Izpiritu Sainduac Ama Biryinaren sabeleco odolic garbienaz eguin zuen gorphutz bat; ezdeusetaric creatu zuen arima bat; arima eta gorphutz hura elkarrequin yuntatu cien Trinitateco bigarren presunai, eta orduartio Jainco baicic etcena gueldithu cen Jainco eta Guizon equinic.
G. Christoin Ama bethi bici izan cen Biryina?
I. Bai, Jauna, bethi Biryina.
G. Cergatic hil nahi izan zuen gurutzian?
I. Gu bekhatutic eta heriotcetic libratcia gatic.
G. Cer aditcen duzu Jesu-Christo hil ondoan yautsi cen Ifernuaz?
I. Ez dut aditcen condenatuac dauden bekhu huro, bainan yustuac zauden Lambua, deithcen baita Abrahamen Seinalia.
G. Nola yautsi cen?

## Doctrinain bigarren partea; ceinetan irakusten baitic cer behar den galdequin, eta Eliza Ama Saindiain othoitzac.

---

Ikusi dugu nola dakizun cer behar duzun sinhetsi, ceina baita lehenbicico gauza: guacen bigarrenea, ceina baita yakitia cer behar den galdequin

---

G. Errazu: Norc erran zuen gue Aita?
I. Jesu-Christoc, Jauna.
G. Certaco?
I. Guri othoitz eguiten irakhusteco.
G. Cer da Othoitza?
I. Jaincuai bihotza altchatcia, eta fagoria galdeguitia.
G. Gue Aita erraitian noequin mintzo zare.
I. Jainco gue Jaunaiquin.
G. Non da Jainco gue Jauna?
I. Lekhu gucietan: berecíki Ceruan eta Aldareco Sacramendu Sainduan.
G. Cein da othoitzetan hobeena
I. Gue Aita, Jauna

G. Cer da Eliza?
I. Eliza da fidel gucien bilcuya, ceinain burua baita Erromaco Aita Saindua.
G. Nor da Aita Saindua?
I. Erromaco Aphez Nausia, lurrian Christoin Bicarioa, ceinai guciac baitga obligatuac obeditceia.
G. Creduaz eta Articuluez campo, sinesten duzu bertce cembait gauza?
I. Bai, Jauna, Escritura Sainduan dien guciac, eta Sainduac bere Elizai irakutsi diozkan guciac.
G. Cer gauza die haiec?
I. Hori ez niri galdeguin, ceren ez baitut yakitatcic aski. Eliza hemo Sainduac baitu dotoriac, yakinen dutenac ihardesten
M. Unqui diozu, dotorei daotela, eta ez zuri, contu emaitia Fedezco gauza guciez. Aski da zuretzat Articulu Fedezcuac ikastia, Creduan dauden bezala.

I. Iguzu egun gue eguneco oguia.
G. Cer galdeguiten duzu eskatze hortan?
I. Eman detzaguela Sainduac gorphutzeco
combeni den bazkurria; arimaco gracia
izpirituzalac eta Sacramenduac.
G. Cein da bortzgarrena.
I. Barkha dazkiguitzu gue zorrac, guc
gu zorgaitaztenei barkhatzen diozka-
teguun bezala.
G. Cer galdeguiten duzu eskatze hortan?
I. Sainduac barkha detzaguela gue bekhatuac,
hala nola guc barkhatcen baititugu
gue gaizqui eguilei.
G. Cein da seigarrena?
I. Ez gaitzatzula utz tentamendutan erortcea
G. Cer galdeguiten duzu eskatze hortan?
I. Sainduac ez gaitzala utz erortcea, ez eta
ere consentitcea, debruac bekhatutan
erortcia gatic ekhartcen dituen phentsamen
du, eta tentacione gaichtotan.
G. Cein da zazpigarrena?
I. Libra gaitzatzu gaitcetic
G. Cer galdeguiten duzu eskatze hortan.
I. Sainduac libra gaitzala arimaco eta

G. Cergatic ?
I. Ceren Iesu-Christoc berac erran baitzuen bere ahoz, Apostoluec escaturic.
G. Cergatic oraino ?
I. Ceren baititu zazpi galde caritatian zimendatuac.
G. Cein dire ?
I. Lehenbicicua, erabil bedi saindugui zure icena.
G. Cer galdequiten duzu eskatze hortan ?
I. Jaincuain icena izan dadila ezagutua, eta ohoratua mundu gucian.
G. Cein da bigarrena ?
I. Ethor bedi zure erresuma.
G. Cer galdequiten duzu eskatze hortan ?
I. Jaincuac erreguina dezala hemen lurrian gure arimetan graciaz, eta guero eman dezagula bere Loria.
G. Cein da hirugarrena ?
I. Eguin bedi zure borondatia, Ceruan bezala, lurrian ere.
G. Cer galdequiten duzu eskatze hortan ?
I. Jaincuain borondatia eguin dezagula lurrian gaudenec, Ceruan dohatsuec eguiten duten bezala.
G. Cein da laugarrena ?

G. Eta Aldarean dagona zer da?
J. Cerian dagonain itchura eta imagina bat.
G. Certaco dago Aldarian?
J. Hura ikhustiarequin orhoit gaitecen Cerian dagonaz, eta haren itchura eta iduria delacotz eguin dezoguen agur.
M. Gauza hau bera eguin behar duzu bertce Sainduen imaginei eta errlakiei.
G. Eguin behar dugu athoiltz Ainguerriei eta Sainduei?
J. Bai, Jauna, gure arartecoei bezala.
G. Cer dire Ainguerriac?
J. Izpiritu dohatsu batzuec Cerian Saincuaz gozatcen daudenac.
G. Certaco Jaincuac creatu cituen
J. Eternitate gucian laudatceco eta benedicatceco.
G. Certaco oraino?
J. Haren Ministro bezala goberna dezaten Eliza eta guizonac beguira.
G. Beraz zuc baduzu Ainguerri beguiraila

gorphutzeco langer, eta gaitz guzietaric

G. Cergatic erraten duzu lehenic « Gure Aita Ceruetan zaudena ? »

I. Saincuai bihotza altchatzeco, eta galdeguiteco humilitate eta confiantzarequin.

G. Cer erran nahi du « Amen » azkenian erraten duzun hitz harc

I. Hala-biz; edo hala izan dadila.

G. Cer othoitz eguiten diozu berezki Ama Birjinai ?

I. Agur Maria eta Salbia.

G. Norc erran zuen Agur Maria ?

I. Aingueru Gabrielec ethorri celaic Ama Birjinain salutatcera.

G. Norc erran zuen Salbia ?

I. Eleiza Ama Sainduac du eguin

G. Certaco ?

I. Ama Birjinai laguntzac galdeguiteco

G. Agur Maria eta Salbia erraten ditutzunian norequin mintzo zare ?

I. Birjina Maria Sainduaiquin.

G. Nor da Birjina Maria Saindua ?

I. Andre bat berthutez bethia, Saincuain Ama dena, eta dagona Ceruan.

G. Norc bekhatu eguiten du Manamendu hunen contra?
I. Sinhesten, eta adoratcen dituenac Idolac, edo Jainco faltšuac.
G. Norc gueiago?
I. Superstitione, edo sorguinquerietan sinheste hartcen duenac, eta heyetaz baliatcen.
G. Cein da Bigarrena?
I. Juramentuic izuc ez duzu ez cinic eguinen banoki.
G. Norc eguiten du yuramentu banoki?
I. Juramentu eguiten duenac guezurraren gainian eta beharric gabe
G. Eta bekhatu da creaturen gatic yuramentu eguitia banoki?
I. Bai, Jauna, ceren heki eguitian eguiten baitzaio yuramentu Creatzailiai
G. Cer erremedio da yuramentu banoic ez eguiteco?
I. Usaya hartzia erraitia bai, edo ez Jesu Christoc irakhusten daocun bezala.
G. Cein da hirugarrena?
I. Igandiac beguira zatzu, Jauna ere cerbitza ~~oso~~ debotki

I. Bai, Jauna eta bacatchac badu beria.
M. Beraz hari debocione handia izan zazu, eta hari gomenda zaite egunguciez.

## Doctrinain hirugarren partia; ceinetan irakhusten baita cer behar den obratu.

Ikhusi dugu cer behar duzun sinhetsi eta galdeguin; ikhus dezagun orai cer behar duzun obratu.

G. Errazu: Cein da Jaincuain Leguéco lehenbicico Manamendua?
I. Jainco bat adora zazu, halaber maitha osoki.
G. Norc maithatcen du Jaincua osoki?
I. Haen manamenduac beguiratcen dituenac.
G. Cer da Jaincuain maithatcia osoki.
I. Nahiago izaitia gauza guciac galdu ecen Jaincua ofensatu:
G. Certaa guchiago obligatcen gaitu Manamendu hunec?
I. Haen bakharric adoratzia gorphutceco eta arimaco lehiäic handienaz, sinhetsiz, eta esperantza hartuz haen baithan fede biciaiquin.

I. Bertcerena ebatsico ez duzu, ez atchikico inyustuki.

G. Cer manatzen da Manamendu huntan?

I. Ez kentzia, ez idukitzia, ez eta ere nahi izaitia bertceren gauza yabiaren laudamena gabe.

G. Cein da zortcigarrena?

I. Lekhucotasunic ez duzu, ez hitz erranen faltsoki.

G. Cer manatcen da Manamendu huntan

I. Ez arinki proximo lagunaz gaizki yuyatcia, ez erraitia, ez eta ere aguertcia haen hutsac.

G. Norc bekhatu eguiten du Manamendu hunen contra.

I. Arrazoinic gabe yuyamendu gaichtuac eguiten dituenac; fama kentzen; secretua aguertcen, eta guezurra erraiten

G. Cer debecatcen da bederatci eta hamargarren Manamenduan?

I. Haraguisco placer, eta bertceren ontasunen guticia gaichtoac.

G. Nore beguiratcen ditu Igandiac eta Bestac?
I. Meza osua entzuten duenac, eta beharric gabe lanian haitzen ez denac.
G. Cein da laugarrerrena?
I. Aita eta Ama ohora zatzu, bici zaitecen luceki.
G. Nore ohoratcen ditu Aita eta Ama?
I. Obeditcen, laguntcen, eta errespetatcen dituenac.
G. Nor bertceic aditzen duzu Aita eta Amain icenian?
I. Izaharago dienac adinian, nausiaguac edo aintzindariac.
G. Cein da bortzgarrena
I. Nihor obraz hilen ez duzu, ez borondatez gaichtoki.
G. Cer manatcen da Manamendu huntan?
I. Nihoi gaizquiic ez eguitia ez hitcez, ez obraz, ez eta desiraz
G. Cein da seigarrena?
I. Lohikeriaic eguinen ez duzu, obraz ez gogoz likhiski.
G. Cer manatcen da Manamendu huntan?
I. Izan gaitecela garbiac, hitcez, obraz, eta phen-tsamenduz.
G. Cein da zazpigarrena?

# Obra Misericordiazcuac die hamalau: zazpi izpiritualac, edo arimai zaizconac; eta bertce zazpi corporalac, edo gorphutzai zaizconac.

## Zazpi izpiritualac, edo arimai zaizconac die hauc.

Lehenbicicua: Ez dakienai erakhustia
Bigarrena: Behardienai conseilu on emaitia
Hirugarrena: Gaizki dabilanain correitzia.
Laugarrena: Afruntuen barkhatcia.
Bortzgarrena: Tristen contsolatcia.
Seigarrena: Proximo lagunain hutsac, eta flakeziac pacientciaikin sofritcia.
Zazpigarrena: Hilentzat eta bicientzat Jaincuai othoitz eguitia.

## Zazpi corporalac, edo gorphutzai zaizconac die hauc.

Lehenbicicua: Eriac bisitatcia
Bigarrena: Gose denai yatea emaitia.
Hirugarrena: Egarri denai edatea emaitea
Laugarrena: Gathibuac erostia
Bortzgarrena: Biluciac beztitcia

# Eliza Ama Sainduain Manamenduac die bortz

Lehenbiciciua: Igande eta Bestetan Meza osua entzutia

Bigarrena: Urthian behin bederen confesatcia, edo bertzenaz herioteco lanjerian suertaitzen bada.

Hirugarrena: Basco garizumacoetan comuniatcea.

Laugarrena: Eliza Ama Sainduac manatcen duenian barurtcia.

Bortzgarrena: Detchumac eta Primiciac Saincuain Elizai pagatcia.

## Manamendu berac Franciaco guisa.

1. Meza Saindua entzun-zazu, besta Igandetan debotki
2. Bekhatuac confesa zatzu, urthian behin osoki.
3. Gorphutz Saindua errecibi zazu, bazcoz bederen humilki
4. Garthac bigiliac barur zatzu, Garizuma ere osoki.
5. Detchumac eta Primiciac paga zatzu, Elizai chuchenki.

G. Certaco die Manamendu hoiec

I. Saincuain Leguiain hobeki beguiratceco

Bortzgarrena: Anuntziua.
Seigarrena: Ordena.
Zazpigarrena: Ezcontza.

G. Cer die Sacramenduac?

I. Sacramenduac die seinale agueri batzuec Jesu-Christo gue Jaunac establituac, hetaz emaiteco guri bere gracia, eta berthutiac.

G. Cer da gracia?

I. Izaite dibino bat eguiten duena guizona Jaincuain seme, eta Ceruco primo.

G. Cer berthute emaiten dituzte Sacramenduec graciaikin batian?

I. Principalki hiru Theologalac, eta Dibinuac.

G. Ceir die?

I. Fedia, Esperantza, eta Caritatia.

G. Cer da Fedia?

I. Ikhusi ez duguna sinhestia, Jaincuac hala erran duelacotz.

G. Norc bekhatu eguiten du Fediain contra?

I. Gure Religioneco eguia gueciac sinhesten ez dituenac, edo dudatzen dituenac; edo bere faltaz ikhasten ez dituenac.

G. Cer da Esperantza?

Seigarrena: Pobre, eta Pelegrinei ostatu emaitia
Zazpigarrena: Hilac ehorztia.

G. Cergatic deithcen die obra misericordiazcuac?
I. Ceren ez baitie zor yusticiaz.
G. Noiz obligatuen dute bekhatuaen azpian
I. Guizon yakintsunec behar handia dela yugatcen ditenian.

## Doctrinaren laugarren partia: ceinetan irakhusten baitie errecibitu behar dien Sacramenduac.

Ikhusi dugu cer behar duzun sinhetsi, galdeguin, eta obratu: ikhus dezagun orai cer behar duzun errecibitu.

G. Erratzu Sacramenduac?
I. Eliza Ama Sainduain Sacramenduac die zazpi lehenbicico bortzac die beharrezcuac, obraz edo desiraz errecibitu behar dienac, ceinac gabe ecin salba baidaitegue guizona uzten balinbaitu nardaz: bertce biac die borondatezcuac: ~~bert~~

Lehenbicicua: Bathayua.
Bigarrena: Confirmacionia.
Hirugarrena: Penitentcia.
Laugarrena: Gorphutz saindua.
I.

duelaic dembora berian. — Nic bathayatcen zaitut, Aitain, eta Semiain, eta Izpiritu-Sainduain icenean. Hala biz.

G. Certaco da Confirmacioneco Sacramendua?

I. Guehiago gu borthizteco bathayuan errecibitu guinduen fedian.

G. Certaco da Penitentciaco Sacramendua?

I. Bathayatuz gueroz eguin bekhatuac barkhatceco.

G. Cer bekhatu die hec?

I. Bekhatu mortalac eta beniälac

G. Cer da bekhatu mortala?

I. Bekhatu mortala da, erraitĉa, eguitia, phentsatcia, edo desiratcia Sainduain Leguiain contra dien gaucetan.

G. Cergatic deithcen da mortala?

I. Cein hiltcen baitu eguiten duenain arima.

G. Cenbat parte ditu Penitentciaco Sacramenduac bekhatu mortalain kentceco?

I. Hiru Jauna

G. Cein die?

I. Bihotceco doloria, ahozco confesiua, eta obrazco satisfacionia

I. Cerico loriat heltzeco esperantza izaitia Jaincoain gracioain eta gue obra onen medioz.
G. Norc bekhatu eguiten du Esperantzain contra?
I. Jaincoain baithan esperantza galtcen duenac; Ceruain irabaztea entsaiatzen ez denac; eta Jaincoa misericordiosa delacotz bekhatu eguiten duenac.
G. Cer da Caritatia?
I. Jaincoain maithatcia gauza gucien gainetic, eta lagun proximua gue buruac bezala: hekiei eguinez, hec guri eguitia ~~[illegible]~~ nahi guinuquena.
G. Certaco da Bathayoco Sacramendua?
I. Bekhatu originalarex kentceco, eta bertce edo cein bekhatu kausitzen bada bathayatcen denain baithan.
G. Cer da bekhatu originala
I. Gue Aita Adam, eta Ama Evain ganic sortcez heldu zaicun bekhatu bat.
G. Norbaitec bathaya dezaque behar orduan?
I. Bai, Jauna.
G. Cer eguin behar da nigun bathayatceco?
I. Ur naturala ichuri behar du bathayatua izan behar duenain buruain guinca erraten

Seigarrena: Ogui benedicatuaz.
Zazpigarrena: Gue Aita erraitiaz.
Zortcigarrena: Predicuac aditciaz:
Bederatcigarrena: Bulharrac yoz Jaincuai barkhamendu galdequitiaz.

G. Certaco da Comunioneco Sacramendua?
I. Errecibitcen delaic digneki, izan dadin gue arimen hazkurria, eta berre dezan gracia.
G. Cer errecibitcen duzu Comunioneco Sacramendu Sainduan?
I. Iesu-Christo Jainco, eta Guizon eguiazcoa, Aldareco Sacramendu Sainduan errealki dagona.
G. Certaco da Anuntcioco Sacramendua?
I. Hiru gaucetaco
G. Cein dic?
I. Lehenbicicua: Bekhatuain notain kentceco.
Bigarrena: Arimai indar emaiteco etsayain tentacionen contra
Hirugarrena: Gorphutzai osasuna emaiteco comberi bazayo.
G. Certaco da Ordenaco Sacramendua
I. Ordenatceco, eta consecratceco Elizaco Ministruac, nola baitie Aphezac, Diacriac eta

G. Bekhatu mortalian erortcen den aldi guciian confesatu behar da berhala bekhatuaa barkhatcecotz?
J. On laitake, bainan ez da necesario.
G. Cer eguin behar du beraz?
J. Içan behar du bere bekhatuez eguiazco urriki bat, eta hobeki bicitceco chedia ~~ta~~ eta confesatcen delaic Eliza Ama Sainduac manatcen duen demboran.
G. Cer da bekhatu beniala?
J. Bekhatu beniala da erraitia, eguitia, phentsatcia, edo desiratcia Saincuain Leguiain contraco gauza chumetan.
G. Cergatic deithcen da beniala?
J. Cein hartan guizona aise erortcen baita, eta aise barkhatcen baitzayo.
G. Cembat gauzaz barkhatcen zayo?
J. Bederatciez, Jauna.
G. Cein dic?
J. Lehenbicicua: Mezaren entzutiaz.
Bigarrena: Comuniatciaz.
Hirugarrena: Ni bekhatorosa erraitiaz
Laugarrena: Aphez guciain benedicioniaz.
Bortzgarrena: Ur benedicatuaz.

G. Cer da Urguilua?
I. Bertciac baino guehiago izaiteco amodio desordenatu bat.
G. Cer da Abariciua?
I. Ontasunetaco amodio desordenatu bat.
G. Cer da Lohiqueria?
I. Desonesqueritaco placer oquinen amodio desordenatu bat.
G. Cer da Inbidia?
I. Gue lagunain ontasunaz damu içaitia, hainac guria gutitcen balu beçala.
G. Cer da Gormandiça.
I. Jateco eta edateco amodio desordenatu bat.
G. Cer da hasarredura?
I. Hura da arimain bicitasun handi bat, ceinac alcharazten baigaitu gue proximo lagunain contra
G. Cer da Alferqueria
I. Obra on eguiteco eta gue eguinbidentzat dugun naguitasun bat.

Zazpi bicio hoyen contra badie zazpi berthute

Sudiacriac.

G. Certaco da Ezcontzaco Sacramendua?

I. Ezcontceco, eta Ezconduei gracia emaiteco bici daiteen elkarrekin baquean, eta umeac haz detzaten Ceruraco.

## Bekhatu Capitalac die zazpi

Lehenbicicua: Urguilua.
Bigarrena: Abaricia.
Hirugarrena: Lohiqueria.
Laugarrena: Inbidia.
Bortzgarrena: Gormandiza.
Seigarrena: Hasarredura.
Zazpigarrena: Alferqueria.

G. Cergatic deithan dituzu Capitalac?

I. Ceren hoiec baitie bertce bekhatu gucien ithurburuac eta ethorquiac.

G. Noiz die mortalac?

I. Dielaic Jaincoain, eta proximo laguneain caritateain contra.

G. Noiz die caritateain contra?

I. Hoietaz hausten delaic Jaincoain, edo Elizaen Manamendu bat gauza handian.

## Berthute Theologalac dire hiru.

Lehenbicicua: Fedia.
Bigarrena: Esperantza.
Hirugarrena: Caritatia.

## Berthute Moralac dire lau.

Lehenbicicua: Prudentcia
Bigarrena: Justicia
Hirugarrena: Indarra.
Laugarrena: Sobretasuna

## Gorphutceco Sendimenduac dire bortz.

Lehenbicicua: Beguiez ikhustia
Bigarrena: Beharriez aditcia.
Hirugarrena: Ahoz gustatcia.
Laugarrena: Sudurrez usaintcia.
Bortzgarrena: Escuz uquitcia

G. Certaco eman daizkigu Jaincuac sendimenduac, eta bertce gaineaco menbruac

I. Hura gucicz cerbitza dezagun gauza gucietan.

Urguiluain contra, Humiltasuna
Abariciuain contra, Largotasuna
Lohiqueriain contra, Garbitasuna
Imbidiain contra, Lagun proximuain amodioa
Gormandiçoin contra, Sobretasuna
Hasarreduraın contra, Baquetasuna
Alferqueriain contra: Lanain amodioa

## Arimain etsayac, ceinetaic ihes eguin behar baitegu, dic hiru.

Lehenbicicua: Mundua.
Bigarrena: Debrua.
Hirugarrena: Haraguia.
G. Nola ihes eguiten da Munduain ganic?
I. Mespresatuz haen handitasun, eta banitatiac.
G. Nola ihes eguiten da Debruain ganic?
I. Othoitzaz; eta humiltasunaz.
G. Nola ihes eguiten da Haraguiain ganic.
I. Barurtuz, eta gorphutza mortifiocatuz: hau da etsayic handiena, ceen haraguia ez dezaquegu apparta gue ganic, bainan bai, Mundua, eta Debrua.

# IzpirituSaindaren Fruituac dire hamabi

Lehenbicicua: Caritatia.
Bigarrena: Baquia.
Hirugarrena: Bihotceco handitasuna.
Laugarrena: Urricaltasuna.
Bortzgarrena: Fedia.
Seigarrena: Beguirapena,
Zazpigarrena. Gozo izpirituala.
Zortcigarrena: Pacientcia.
Bederatcigarrena: Ontasuna;
Hamargarrena: Beraztasuna.
Hamecagarrena: Modestia
Hamabigarrena: Garbitasuna.

## Dohatsutasunac dire zortci.

1. Dohatsu dire izpirituz pobre direnac;
   Ceen heyentzat da ceruetaco erresuma.
2. Dohatsu dire eztiac;
   Ceen hec lurreco primo izanen baitie.
3. Dohatsu dire nigar eguiten dutenac;
   Ceen hec contsolatuac izanen baitie

## Arimaco Potenciac dir hiru.

Lehenbicicua: Memoriua.
Bigarrena: Adimendua.
Hirugarrena: Borondatia.
G. Certaco Sainduac eman zaocun Memoriua?
I. Orhoitceco hartaz, eta haen fagorez.
G. Certaco Adimendua?
I. Ezagutceco Saincua, eta phentsatceco haen baithan
G. Certaco borondatia?
I. Maithatceco Saincua gauza gucien gainetic, eta proximo laguna haen amoria gatic.

## Izpiritu Sainduain dohainac dir zazpi

Lehenbicicua: Saquitatiain dohaina.
Bigarrena: Adimenduain dohaina.
Hirugarrena: Conseiluain dohaina.
Laugarrena: Ezagutzain dohaina.
Bortzgarrena: Indarrain dohaina.
Seigarrena: Piêtatiain dohaina.
Zazpigarrena: Saincuain beldurtasunain dohaina.

I. Gustuac uzten dituztenac, Ttikiac izanic ere.
G. Nor die yusticiaz gose eta egarri dienac?
I. Obligacionez duten gucia arthärequin eguiten dutenac.
G. Nor die misericordiosac?
I. ~~Posto~~ Urrikalmenduz bethiac dienac arrotcequin ere.
G. Nor die bihotcez garbi dienac?
I. Been pasionetan osoki mortificatcen dienac.
G. Nor die baquea atchemaiten dutenac?
I. Been eta bertcen artëan baquia ezartcen dutenac.
G. Nor die yusticia delacotz persecutatuäc dienac?
I. Gauza onetan sustengatcen dienac persecutatuac izanic ere.
G. Cergatic deitcen die Dohatsutasunac edo Zorïontasunac.
I. Ceen hordïan dago bicitce huntaco urostasuna, eta bertceco esperantza.

4. Dohatsu dire yusticiaz gose eta egarri direnac:
Ceen hec aseco baitire
5. Dohatsu dire misericordiosac;
Ceen misericordia eguina izanen baitzayote.
6 Dohatsu dire bihotcez garbi direnac;
Ceen hec Jaincoa ikhusico baitute:
7. Dohatsu dire baquia atchimaiten dutenac;
Ceen hec Jaincoaren haur deithuac izanen baitire.
8 Dohatsu dire yusticia delacotz persecutatuac
direnac.
Ceen hezentzat baita cerietaco erresuma.
G. Cer erran ditugu orai?
I Zortci Dohatsutasunac, edo Zoriontasunac.
G. Cer gauza dire hogec?
I Izpiritu Saindvaren dohaini eta Bertuten
obraic hoberenac.
G Nor dire Izpirituz pobre direnac?
I. Nahi ez dutenac ohoreic, eta aberastasunic,
chumiac izanic ere.
G. Nor dire eztiac?
I. Samurdurarie edo hasarrecoie hartcen ez dutenac
G. Nola dire lurrain yabe?
I Beren burien yaun bezala.
G. Nor dire nigar eguiten dutenac?

I. Ifernua da Debruen, eta bekhatu mortaleco estatuan hil dién guizonentzat hautatua dohákabétasuneco lekhu bat.

G. Cer da Purgatoriùa?

I. Purgatoriua da graciazco estatuan hil dien arimac dohazin lekhu bat, non mundu huntaco parthez emanen baitute been bekhatuez satifacione osua.

G. Satifacionei eman dezakegu guc Purgatoriotan dauden arimen penen laburtceco?

I. Bai, Jauna: bima yustu hekien penac labur ~~eti~~ detzakegu, bai eta ere akaba guc othoitzez, barurez, amoinez, indulgenciez eta bereciki Mezaco Sacrificio Saindueaz.

## Indulgentciaz

G. Cer da Indulgentciá?

I. Mundu huntan, edo Purgatoriotan penitentciaz Jaincuai bekhatuen gatic eman behar zayon satifacionaiain barkhamendua.

G. Nola ~~Nola~~ irabazten da Indulgentcia?

I. Hunen irabazteco manatcen dien gauzac eguinez graciazco estatuan.

# Guizonaïn lau azquen Finac?

G. Cein dire Guizonaïn lau azquen Finac?
I. Heriotcia, Yuyamendua, Parabizua, eta Ifernua.
G. Cer da Heriotcia
I. Arima gorphutcetic berechtia.
G. Cer da Yuyamendua?
I. Yuyamendua da Saincuaïn aintcinian aguertcia eguin den unguiaïn sariain hartceco, edo gaizquitaïn gaztiguaïn izaiteco.
G. Norat guanen da arima yuyatua izan orduan?
I. Guänen da bethicotz Parabizura edo Ifernura, edo dembora batentzat Purgatoriotaa, guero Parabisuan sartceco
G. Eta gorphutza cer equinen da?
I. Gorphutza guelditüco da lurrian munduain akhabantzaino; bainan orduan yuntatuco da lehenagoco arima beraiguin hunen chorte beraïn izaiteco.
G. Cer da Parabisua?
I. Parabisua da Ainguerien eta Saincuaïn gracian hil dien guizonentzat hautatua dohatsutasunezco lekhu bat.
G. Cer da Ifernua

cena baita Andredena Maria, ez duelacotz bitaic Guizon bezala, eta Amaic Jainco bezala.

G. Non da Christo

J. Jainco bezala ~~bidu~~ lekhu eta gauza gucietan eta Guizon bezala bakharric Cerúan eta Aldareco Sacramendu Sainduan.

G. Cein eguinez contcebitu izan da Jesu-Christo Ama Berginain Sabelian ?

J. Martchuain hogoi eta bortcian: hil cen Ortciale Sainduz: phiztu cen Bazco eguinian: eta igorri zuen Izpiritu Saindua Apostoluei Mendecoste eguinian

## Confesiuaz.

G. Cembat gauza behar die Confesio on baten eguiteco?

J. Bortz Jauna.

G. Cein die?

J. Lehenbicicua: Contcientciain examinatcia.
Bigarrena: Bekhatuez damu eta urriqui natualezaz goraco bat hartcia.
Hirugarrena: Guehiago bekhatuic ez eguiteco cheole fermu bat hartcia

G. Nola barkhatcen ditu Elizac bekhatuai zor tzaizcon pena temporalac?
I. Aplicatuz Elizain icenian Jesu-Christoen Pasionia, eta Sainduen merecimendu sobraniazcuac.

## Incarnacioneco Mysteriuaz.

G. Cer da Incarnacioneco Mysteriua
I. Trinitate Sainduco bigarren Presuna, ceina baita Jaincuain Semia, Guizon eguina Maria Birjinain Sabelian Izpiritu Sainduain obraz eta berthutez, Andre hau guelditcen celaic Birjina erdi aitcinian, erditzian, eta erdi onduan.
G. Cembat naturaleza ditu Jesu-Christoc?
I. Baditu bi naturaleza: Jaincuaina, eta Guizonaina: baditu ere bi adimendu, eta bi borondate: Presuna bat, Jainco bezala; eta memorio bat, Guizon bezala, ceen ez delacotz khausitcen Christo baithan Presuna humanoic, eta Jainco bezala gauza gueciac dauzcalacotz goguan: Aita bat Jainco bezala, ceina baita Aita eternala. eta Ama bat, Guizon bezala

Laugarrena: Bekhatuac dien bezala confesatcia.
Bortzgarrena: Penitentciain bethetzia.

G. Cer da Contcientciain examinatcia?

I. Azquen Confesio onaz gueroztic eguin bekhatuez orhoitcia.

G. Nondic examinatcen da Contcientcia?

I. Saincuain Legueco hamar Manamenduetaic Eliza Ama Sainduain bortcetaic, Obra misericordiazcoetaic, bekhatu capitaletaic, eta bacotchac berac bere estatuco equinbidetaic.

G. Nola behar da examinatu Contcientcia?

I. Saincuai graciac galdeguin onduan orhoitu behar da nori eta noikin ibili den eta cer ocasionetan khausitu den; cer bekhatu eguin duen manamendu bakhotchian, eta bere estateco equinbidetan.

G. Cembat dembora behar da contcientciain examinatceco?

I. Ez da dembora seinalatuic bakhotchac berac hartu behar du kausitzen den beharrain arabera, hau delacotz equiteco ic baliosena.

G. Cer da Doloria?
I. Damu eta urriqui naturalezaz goragoko
bat Jaincoa ofentsatuic.
G. Ceinbat guisetaa da Doloria?
I. Bietaa Jauna:
G. Cein dir?
I. Contricionia, eta Atricionia
G. Cer da Contricionia?
I. Damu eta urriqui naturalezaz goragoko
bat Jaincoa ofentsatuic, ceen den guciz ona,
eta maithagarria, confesatceco, eta guehiago
bekhatuic ez eguiteco chede fermu batequin
G. Cer da Atricionia?
I. Damu eta urriqui naturalezaz goragoko
bat Jaincoa ofentsatuic, bekhatuain
itsusitaaunaz, Ceruain galtciaz eta
Ifernuain merecitziaz, confesatceko, eta
guehiago bekhatuic ez eguiteco chede
fermu batequin.
G. Cein da bi Dolore hoitaic hobeena?
I. Contricionia, Jauna.
G. Cergatic?
I. Ceen Contricioniac berac confesatu baino
lehen barkhatzen baititu bekhatuac

bainan Atricioniac confesatu onduan.

G. Cer da Chedia?

I. Guehiago bekhatuic ez eguiteco deliberxtione fermu baten hartcia.

G. Cer da Confesiua?

I. Confesiua da Aphez Orderatu bati erraitia bekhatu guciac contcientcian kausitcen dien bezala batere gorde gabe.

G. Nola behar dir confesatu bekhatuac?

I. Behar dir garbiki erran gogoz, hitcez, eta obraz Manamendu bakotchian eguin bekhatu guciac bai eta ere arrazoina, bekhatua handiago eguiten edo sanyatcen duten guciac

G. Contcientcia examinatu faltaz behar bezala, ahalkez, beldurrez edo maleciaz uzten bada bekhatu mortal bat confesatceco, confesiua ona da?

I. Ez, Jauna: Leheneco bekhatuen gainea eguinen du sacrilio bat eta gueldditcen da obligatua confesio berain erreberritcia.

G. Confesio ona izanen da, bere nahiric gabe ahanzten bazaio erran gabe bekhatu mortal bat?

I. Bai, Jauna, bainan orhoitcen delaic leken confesioan erran behar du, nola aintcinian utzi zuen ahantcirik bekhatu hura.

G. Baldin bekhatu mortal bat confesatcen badu dudan, eta guero orhoitcen bada segurki eguin zuela behar du berriz confesatu bekhatu bera?

I. Bai, Jauna ceen bekhatuez orhoitcen deraz gueroz, barkhatuac izateco confesatu behar dir segur guisa.

G. Bekhatu benialac confesatu behar dire?

I. On litake, bainan ez da nesesario.

G. Cer da satifacionia?

I. Confesorac emaiten duen Penitentciain complitcia.

G. Noiz behar da complitu penitentcia?

I. Seinalatzen badu ephia, denbora hartan berian; seinalatzen ez badu, ahal bezain laster.

G. Cer bekhatu izain da penitentciain ez complitcia?

I. Penitentcia handia bada, eta uzten parte haundi bat izanen da bekhatu mortala

G. Cer eguin behar da guero?
I. Erran onduan berac cembat dembora duen azquen confesatuc, eta absolucionia izanic, erran ditu bere bekhatu guciac humiltasunic haundienaiquin.
G. Cer erran behar da bekhatuac erran onduan?
I. Bekhatuac bat banazka declaratu onduan; errain da « Guisa berian acusatzen naiz orai eta bethi Jaincuai eguin bekhatu gueiez eta galdeguiten diot barkhamendu, eta zuri, ene Aita izpirituala, penitentzia eta absolucionia baldin conbeni bazait. »
G. Baldin Penitentac ez badu bekhatu mortalic acusatceco, cer eguin behar du?
I. Lehenago eguin bekhatu mortal confesatuetaric bat acusatuco du: eta ez badu, gutienic eguiten duen bekhatu benial bat.
G. Cer eguin behar da guero?
I. Humiltasun eta errespetuequin entzun onduan Confesoraren abisuac, eta errecebitu penitentcia, erraiten da ahuspecatuic bulharrac yoz « Contricionezco acta ».
G. Cer eguin behar da confesatu onduan?
I. Maiz erabil goguan Confesoraren erranac

Penitentcia ttikia bada, edo penitentcia haundilic uzten parte ttiki bat izanen da bekhatu benialaª.

G. Noiz izanen da penitentcia haundia?
I. Emaiten delaic bekhatu mortalen gatic, edo bekhatu mortaleco bidetic urruntcia gatic.
M. Confessio onain eguiteco behar diren bortz gaucetaric bat bakharra s'esquas bada maleciaz, confesio gaichtua eta sacrilegiozcua izanen da: eta salbatcecotz obligatua da confesio gaichto gucien erreberritcia confesio yeneral batez.

## Confesatceco moldiaz.

G. Nola behar da confesatu?
I. Confesorrain oinetaa baina lehen belhaunicaturic eguinen da gurutzian seinalia, ~~eta~~ ahuspez yarriric errain « Ni bekhatorosa, » hau finitu onduan chutitu eta heltcen delaic Confesorrain oinetaa, erraiten da « Laudatua eta benedicatua izan bedi Aldareco Sacramendu Saindua, edo, Aita benedica nazazu ceen eguin baitut bekhatu.

Calitzian.

G. Oguitic eta arnotic ez da deus gueldditcen contsecracionian onduan?

I. Ez: ez da gueldditcen ogniain eta arnuain itchurac baicic cinac baitie: moldia, coloria usaiña, eta gustua.

G. Aphezac Ogui eta arno contsecratuen itchurac berechten dituelaic, hausten da Jesu-Christoin Gorphutza eta Odola?

I. Ez: Jesu-Christo aurquitcen da den gucia berechi den pharte bacotchean: eta hala Hostia pharte bat baicic errecibitcen ez duenac, errecibitcen du Jesu-Christo gucia nola eguiten baitu Hostia osua eguiten duenac

## Comuniatceco disposicionez.

G. Cembat gauza behar die comunione on baten eguiteco?

I. Hiru, Jauna

G. Cein die?

I. Lehenbicicua: Yaquitia cer behar duen errecibitu.

guehiago bekhatuic ez eguiteco chedia berritu; penitentcia hitzeman bezala complitu, eta Jaincoai esquerrac bihurtu.

## Comunioneaz.

G. Cer dago Hostian?

I. Aphezac contsecracioneco hitzac erran artio oguia, Jauna: Aphezac contsecracioneco hitzac erran orduan Jesu-Christoin Gorphutz preciatua hain eguiazki, eta errealki nola baitago ceruan.

G. Cer dago Calitzan?

I. Aphezac contsecracioneco hitzac erran artio arnua ur chorta batekin: Aphezac contsecracioneco hitzac erran orduan Jesu-Christoin Odol preciatua hain eguiazki, eta errealki nola baitago ceruan.

G. Hostia contsecratuan badago Jesu-Christoin Gorphutza bezala Odolaere, eta Calitz contsecratuan Odola bezala Gorphutza ere?

I. Bai, Jauna, batian eta bertcian aurquitcen dir Gorphutza, Odola, Arima, Jaincotasuna, eta hiru Presuna Dibinoac: halaco guisan non guciac baitaude Hostian, eta guciac

# Comunioneco mementuaz.

G. Cer erran behar da Aphezac Hostia Saindua escuan hartcen duelaic.

I. « Jauna, ni ez naiz digne zuc errecibitceco, baiñan errazu choilqui hitz bat, eta ene arima izain da sendatua, eta salbatua; »

G. Cembat aldiz erran behar da?

I. Hirietan, Jauna.

G. Eta guero cer erraiten da?

I. « Jauna, zuc escu dibinoetara gomendatcen dut nere arima »

G. Nola egon behar da comuniatceco mementuan?

I. Bel haurricatuic, eta beguiac aphalduac, baiñan itzuliac Hostia Sainduain ganat, eta mihia azpico ezpainain gainerat erdi athiratua.

G. Cer eguin behar da Hostia Saindua errecibitu onduan?

I. Aphezac escua guibelatu duenian, ahua hetsi behar da, eta Hostia Saindua iretsi hezatu onduan

Bigarrena: Barur naturalian guaitia.
Hirugarrena: Graciazco estatuan egoitia
G. Cer errecibitcen du comuniatcen duenac?
I. Jesu-Christo que Jauna, Jainco, eta Guizon
equiazcoa Cerian, eta Aldareco Sacramendu
Saindauan dagona.
G. Cer aditcen duzu barur naturalian guaitiaz?
I. Izan behar dela gauerdiz gueroz yan eta edan
gabia, non ez duen comuniatu behar eri
bezala.
G. Cer aditcen duzu graciazco estatuan egoitiaz
I. Ez du izan behar bekhatu mortaleco estatuan,
eta hartacotz contcientcia hungi examinatu
onduan, estatu triste huntan Kausitzen
badu bere burua, garbitu behar du confesio
on batez.
G. Bekhatu mortaleco estatuan comuniatcen
dutenec errecibitcen dute Jesu-Christo?
I. Bai, Jauna: baiñan been burucen condenacio
neco, ceren eguiten duten sacrilegiozco bekhatu
izigarri bat.
G. Nola hurbil du behar dela comuniatcea?
I. Oneski beztitua, humilitate, errespetu,
eta equiazco debocione batekin

confesio huntaic aintcina bici nadin zue borondate sainduaikin ez eguinez, ez erranez, ez eta phentsatuz zue Loriaco, eta ene çorioneco denic baizen. Hala biz.

## Confesio ondoco othoitza.

Jauna, zue Ama Sainduain, eta bertce Saindu gucien merecimenduen gatic izan beguizu agreable ene confesio hau eta faltatu izan zaizkidan gauza guciac barkha dazkatala zue pietatiac eta haren havabera urrical zaik. Cerian ene idukitziaz graciazco estatuan eta bortiztiaz ene chede onen guardatceco, bici zarena, eta erreguinatcen duzuna Aitaikin eta Izpiritu Sainduaikin. Hala biz.

## Comunione aintzineco othoitza.

O Aita guciz bothereztzua, ene Jainco eta Creatzaile Saindua, errespetu eta humiltasunic haundienaikin hurbiltzen naiz Aldare Saindu hortara nahiz ez naizen khausitzen digne

# Confesatceco eta comuniatceco othoitzac.

## Confesio aintcineco othoitza

Jesu-Christo ene Jauna, ene salbamenduaren
esperantza bakharra, othoizten zaitut zue Pasionia
eta Heriotcia gatic eman daotazun contricionia
eta auhenac nere bekhatuez nigar eguiteco.
Munduaren salbatçailia bïra zozu bekhatoros
miserable huni, zue Ama Sainduaren eta
bertce Sainduc gucien merecimenduen gatic
igor dezadazun, Jauna, zue arguia inkhuts
detzadan ~~dezadan~~ ~~zue~~ ene falta guciac, eta lagun nazan
zue zerbitzu Saindura heltcen. Damu dut,
Jauna, zu ofentsatuaz ceenzaren gucz ona, eta
osoki maithagarria; damu dut horren disposi-
cione guti izanaz nere falten confesatceco; damu
dut nere bici pasatuan eguin bekhatuez, eta
damu dut ez unitki guehiago ez izanez. Hitz emaiten
daotzut, Jauna, osoki zu ganat bihurtciaz; eta
hiies eguitiaz bekhatuco ocasione gucietaric, beraz
hala othoizten zaitut eman daotazun gracia,
Je dis .... detzadan

heriotcia, amodio desordenatuen desterrua, eta berthute gucien hazcurra: izan bedi ene izpirituain sosegua, etsai gucien azotia, eta bakarric zure aldeaco unionia, ene egun̄az co Jauna eta Saincua. Hala biz.

# Othoitzac.

## Yan aintcineco othoitza

Aitain, eta Semeain + eta Izpiritu Sainduain icenian. Hala-biz.

Gue Jauna, eta Saincua, zu baithan dugu gue esperantza, eta yateco behar dena zuc emaiten duzu: zuc escua zabaldu, eta guciac benedicionez bethetcen gaituzu. Gue Aita, Agur-Maria.

Dohain gucien emaile Jauna, zure escutic hartu, eta yan behar dugun gucia, benedicatu zazu, Jesu-Christo zure Semia gatic.

Aitac, eta Semeac, eta Izpiritu Sainduac benedica gaitzatela eta guero Zeruco Mahainera bethico eraman gaitzatela.

Hala-biz.

zue Mayestate Adoragarriain errecibitceco.
Ene bihotceco hotztasuna da, Jaun soberanua
indigne eguiten nauena behar den amodiuai-
kin zu gana hurbiltceco, bainan zue hitz
eztiac die seguranzaikin hurbilarazten nautenac,
Tinguenen yanari Saindu hartan partalier
izaiteco. Zue borondatia denaz gueroz, Jesus
eztia, desiratcen dut zue Gorphutz dibinuain
errecibitcia Birjina zue Ama Sainduac eta
bertce Ceruco Sainduec errecibitu cintuzten fede
bici, izpiritu garbi eta kkhartsu beraikin.
Hala-biz

## Comunione ondoco othoitza

Eskerrac daozquitzut, ene Salbatzaile maitia,
zuc niri eman gracia gueiez, eta bereziki certaco
nahi izan duzun zue egoitza eguin ene baithan
Comunione Saindu huntaz. Emaiten natzaitzu
naicen gucia, zu niri osoki emanzaren bezala.
Othoizten zaitut, Jesus ona, Comunione Saindu
hau izan dadin enetzat bekhatuen barkhamen-
dua, fediaren defentsa, ene bicio gucien

Mariai, eta contcebitu da Izpiritu Sainduaganic. Agur Maria.

2. Huna Jaunaren nescatua, eguin bequit zue hitzaïn haraberа. Agur Maria.

3. Eta Berbuac hartu du haraguizco gorphutz bat, eta egon izan da gue artean. Agur Maria

## Othoitza

Iguzu othoi, Jauna, gue arimetaa zue gracia, Ainguerуac berri onac ekharri, eta Christo zue Semiaїn Guizon eguitia ezagutu dugun hauc, haїn Pasionia, eta Guruteia gatic bethico Loriaaterемanac izan gaitecen. Hala biz.

## Fedezco Acta.

Ene Jaincua, sinhesten dut zaila, Aita, Semia, eta Izpiritu Saindua, Jainco bakharra, eta hiru Presuna berechiac. Sinhesten dut Trinitateco bigarren Presuna eguin cela Guizon Izpiritu Sainduaїn berthutez: sorthu cela Maria Birjina ganic; eta hil cela Gurutce batian gu salbatcia gatic: igan cela Ceruetaa, eta azquen eguneian ethorrico

# Yan ondoco othoitza.

Aitain, eta Semiain, + eta Izpiritu-Sainduain icenian. Hala-biz.
Esquerrac bihurtcen dauzquitzugu, Jainco guciz bothéretsua, orai eta bethi zure unguí eguin gucies, ceina bici baitzaa, eta erreguinatcen baitzaizu mendetaco mendetan. Zue bita, Agur Maria.
Gure ungui eguile guciei, Jauna zue benediccioniaz paga zaozute zure Icen Saindua gatic: eta ariña fidel guciac Cerura zu laudatzeco eremaitzu eta orai hemen bilduic gauden guciac Ceruco loriàn khausiaraz gaitzatzu.
Hala-biz.

# Orenac yotzian.

Laudatua, eta benedicatua izan bedi Andredena Maria haragui bician Zaragozaa etharri cen orena. Agur Maria

# Angelus ezquila yotzian.

1. Jaunain Aingueruac berri on bat emari dio

barkhatcen diotot nere etsai gucei zue gatic, eta zue icenian.

## Ofreimenduzco acta

Ene Jaincua, esquerrac bihurtcen daozquitzut zue escu dibinoetaic errecibitu izan ditudan graciez eta dohainez, eta berecigui ecen utci nauzun heltcea eguin Saindu huntara, ceinetan zue Loriain ohoretan ofreitcen daozquitzut ene phentsamendu, hitz, eta obra guciac, nahi gabe, ontasun, eta bicia Jesu-Christoin merecimendu, eta Odol preciatuarequin; eta hitzemaiten daotzut fermuqui gueh iago ez ofensatcia zue graciaiquin batian: emandaoz kitatzu beraz, Jauna, zue laguntzac hola goberna nadin Jesu-Christoin, bere Ama Sainduain eta Ceruco bertce Saindu gucien merecimenduen gatic.

dela bicien, eta hilen yuyatcea, emaiteco yustuei bethico Loria, eta gaichtuei seculaco Ifernua.
Sinhesten dut Aldareco Sacramendu Sainduan dagola Jesu-Christoin Gorphutz preciatua, hain errealqui nola baitago Ceruan. Guisa berian Sinhesten ditut Zuc Eliza Ama Sainduai erran eta aguertu diozcatzun Sacramendu, Articulu, eta Eguia sinhetsgarri guciac, eta sinheste huntan bici eta hil nahi dut.

## Esperantzazco Acta.

O ene SainCua! Zue Seme Jesusen merecimenduac, eta heriotcia ararteco dituzalaic, eta haen graciai guin eguin ahala eguiten dualaic, esperantza dut zue misericordian izanen dudala nere bekhatuen barkhamendua, Ceruco Loria, eta hara heltceco gracia guciac.

## Amodiozco Acta

Ene Saincua, maite zaitut ene bihotz guciaz, eta gauza gucien gainetic zaelacotz guciz ona, eta osoki maithagarria. Halaber maite dut nere proximo laguna, nere burua bezala zue amorioatic. Damu dut eta dolu Zu ofentsatuaz

Birjina leyala,
Justiciain miraila,
Gurutciain alkhoia,
Gue bozkariuain ithurburua,
Untzi izpirituala,
Untzi ohoragarria,
Debocioniain untzi miresgarria,
Arrosa misteriozcua,
Dabiten dorria,
Dorre distiranta,
Urhezco etchia,
Alhentciaco arkha,
Ceruco athia,

Othoitz eguizu guretzat

Goiceco içarra,
Erien osasuna,
Bekhatorosen ihes lekhua,
Axecabetuen goçua,
Guiristinuen laguntça,
Ainguerien Erreguina,
Profeten Erreguina
Patriarkhen Erreguina,
Apostoluen Erreguina,
Martiren Erreguina,
Confesoren Erreguina,
Birjinen Erreguina,
Saindu gucien Erreguina,

Othoitz eguizu guretzat

Yaincuain bildoxa, ceinac khentcen baititutçu munduain bekhatuac, barkha deçaguçu, Jauna.
Yaincuain bildoxa, ceinac khentcen baititutçu munduain bekhatuac, entçun gaitçatçu, Jauna.
Yaincuain bildoxa, ceinac khentcen baititutçu mundu-ain bekhatuac, urrical gakizkitçu.
Yesu-Cristo, adi gaitçatçu
Yesu-Cristo, entçun gaitçatçu

# Andredena Mariain Lethaniac.

Jauna, urrical gakizkitçu
Jesu-Cristo, urrical gakizkitçu
Jauna, urrical gakizkitçu
Jesu-Cristo, entçun gaitçatçu
Ceruco Aita, ceina baitzae Jaincoa, urrical gakiz kitçu.
Semia, munduain Salbatçailia ceina baitzae Jaincua, urrical gakizkitçu.
Izpiritu Saindua ceina baitzae Jaincua urrical gakizkitçu.
Trinitate Saindua ceina baitzae Jainco, bakotch bat, urrical gakizkitçu.
Maria Saindua, othoitz eguizu guetzat.
Jaincuain Ama Saindua, othoitz eguizu guetzat.
Birjinen Birjina Saindua, othoitz eguizu guetzat
Jesu Christoin Ama, othoitz eguizu guetzat

Gracia dibinuain Ama,
Ama guciz chahua,
Ama guciz garbia,
Ama hobenic gabia,
Ama notaic gabia,
Ama maithagarria,
Ama miragarria,

Othoitz eguizu guetzat

Creatzailiain Ama,
Salbatzailiain Ama,
Birjina guciz çuhurra,
Birjina ohoragarria,
Birjina laudagarria,
Birjina puchanta,
Birjina amulxua,

Othoitz eguizu guetzat

# Othoitza

Iguzu othoi, Jauna, gue arimetara zure gracia, tinguetuac berri onac ikharri, eta Christo zure Semiaren Guizon eguitia ezagutu dugun hauc, haren Pasionia, eta Gurutcia gatic bethico Loriaat eremanac izan gaitecen.
Halabiz

## Akhabantza